

# 2,2 milioi preso Romney-Obama lehiari begira

Amerikako Estatu Batuak munduko lider dira presotan: 2,2 milioi jende espetxeraturik, epaia betetzen edo judizio zain. Duela 30 urte baino %500 gehiago. Presondegiak jendez gainezka, espetxe pribatuen ugazabak legedia gogortzeko eskatzen, estatua larri pagakizunetan... eta aldi berean herritarrak ez dira seguruago bizi.

| PELLO ZUBIRIA KAMINO |

SENTENCING PROJECT ELKARTEAK udan publikatu duenez, AEBetan presidente berria hautatu behar duten botoen artean populazioaren %2,5enak faltako dira. Zehazki 5,85 milioi iparramerikarrek galdua baitu eskubide hori edo espetxean dagoelako edo handik irten ondoren *felon* (gaiztagin, delinkuente) direlakoen sailean katalogatuta egoteagatik.

Gaiztagin eskubide bako (*felon disenfranchised*) izate hori loturik dago AEBek azken urteotan lortu duten marka historiko batekin: mundu osoan ez da herrialderik AEBek adina preso daukanik. 100.000 biztanleko 753. Herrialde handien artean zilarrezko domina eskuratu du Errusiak 502rekin. Kubak 510 dauzka, dena esateko.

Gizarte eredu yankien antza handiagoa duten estatu mendebal-darrei begiraturaz gero, Espainiak 150 dauzka espetxean 100.000 herritarretatik, Frantziak 102, Belgikak 100, Alemaniak 83, Britainia Handiak 154, Italiak 109... Yankiek bizi-lagun dituzten kanadarrek 117.

Uneotan AEBetako presondegietan 2,2 milioi pertsona daude giltzapean. Baina ez da pentsatu behar beti horrela izan denik: ingelesezko Wikipediak badu grafiko beldurgarri bat *United States incarceration rate* sarreran, erakusten duena azken 100 urteotako garapena, eta

bertan ikustekoa da nola duela 30 urte espetxeratuak ez zirela milioi erdira iristen. Hiru hamarkadaren buruan, orduko bakoitzeko bost dira.

Zer dela eta hainbeste preso? Yankien legeek delitu txikiak bestetan baino gogorrago zigortzen dituzte, Europar 6 hilabeteko espetxealdiz ordainduko litzatekeen droga afera bat han sarritan 6 urtez pagatzen da. Delitu handi bat hirutan eginez gero, 25 urtekoaz. Zenbait legek epailei bidea ixten die bortxarrik gabe egindako delituak arinago kastigatzeko tentalditik.

Drogaren kontrako gerra fama-tua da beste arrazoi funtsezkoa *Sentencing Project*ekoek beren gunean diotenez “Drogaren kontrako gerra deitu zaionak ekarri duen epai politikak eragin du drogen gaietan egindako delituengatik espetxeratuen kopurua harrigarriki handitzea. (...) Preso horietako gehienak ez dira pertsonai inportanteak droga trafikoa, gehienek ez zeukaten aurrekaririk delitu bortizetan”. Datu hotzak bero mintzo dira: 1980an 41.000 preso drogen inguruko delituengatik; 2010ean 507.000.

XXI. mendea aurrera doala AEBetan jendez artean arrazaren kolorearen arabera dauden diferentziak txit nabarmen ageri dira presondegietan ere. Gizartean minoria

*The Sure Truth* guneak eskaintzen duen irudian, Kaliforniako espetxe bat preso mukuru. AEBek preso kopurutan munduko txapeldun bilakatu dituen azken 30 urteotako politikaren kritikoek sarritan aipatzen dute *Prison Industrial Complex*, negozioia espetxeratze sisteman daukan enpresa saila. L. Evans eta E. Goldebergek idatzia (*Prison Industrial Complex and the Global Economy* 2009) da gatibu jendea ugartzeak elikatzen dituela negozio txiki eta handiak hala nola altzari, garraio, janari, janzki, zerbitzu mediku, eraikuntza eta komunikazioan hornitzaile direnak. Presondegi sistema zabaltzea interesatzen zaie, beren etekinak kartzelaratuakoen nombrearen arabera aldatzen baitira. Espetxeen industriak gero eta lehengai gehiago behar du eta hori baizik ez dira haien kontabilitatean gatibuak. Espetxe politika horren ondorio sozial eta humanoak... haien kontabilitatekan kanpo.

direnek espetxeetan gehiengoa daukate: %60 baino gehiago. Hogeita hamar-berrogei urte arteko 10 gizonzko beltzetatik bat gatibu da une honetan. Drogen kontrako gerrarekin zerikusia duten delituengatik itxian dauden hirutatik bat beltza den moduan.

Beti gizonzkoekin segituz –proportzioan emakumeak oso urri dira giltzapean– 100.000 gizonzko beltzen artean 3.059 daude preso, latinoen artean 1.252, aldiz, 100.000 zuritatik 456.

## Kalean bai baina boz barik

Richard Nixonek hasi eta gero Ronald Reaganek gogortutako *war on drugs* famatuak kriminalitatea gutxitu ez baina kondenatuen kopurua biderkatu duenean, protagonista berria agertu da jokoan: negozioia kartzela pribatuak eraiki eta kudeatzean daukaten konpainiak.

*Dollars and Detainees* (Dolarrak eta Atxilotuak) tituluz udan plazaratutako dossierrean Sentencing Project elkarteak azaldu ditu informazio esanguratsuak: “Presondegi pribatuen patronala den Corrections Corporation of Americak 2010ean 1.670 milioi dolar irabazi zituen, aurreko urtean baino 46 milioi gehiago. (...) 2001eko irailaren 11z geroztik modu esponentzian handitu da etorkin presoek kopu-



hauteskundeetan. Nor ausartu liteke mahai gainean aurkeztera bere herrialdea dela munduan preso gehien duena? Nola aurkeztu hauteskudetara esanez agian, edo seguru, hogeita hamar urteotako drogaren kontrako gerra hanka sarzte historikoa izan dela?

Presoak asko izanik, ordea, askoz gehiago dira noizbait espetxetik patea izateagatik boto eskubiderik gabe hauteskundeak pasatzen ikusiko dituztenak. Zehazki ia sei milioi, zehazki 5,85, populazioaren %2,5, *felon disenfranchising* etiketaz markatutakoak.

Gaiotaz informazio zehatza eskaintzen duen *ProCon.org* gunearen arabera, AEBetako estatuetatik bitan presoek atxikitzen dute bozkatzeko eskubidea; 13tan eskubidea berreskuratzen dute espetxetik irtearekin; beste 23 gehiagotan ez dute eskubiderik irten eta askoz beranduago arte, kondizionalak eta bestelako baldintzak gaindituta; eta, azkenik, 12 estatutan bizi osorako galdu dezakete eskubidea espetxetik patea izateagatik.

Boza ukatzen zaien kopuruan ere aldatzen dira larruazalaren kolorearekin. Batz bestea estatubatuarren %2,5 baldin bada egoera horretan, afrikar amerikarren %7,7daude zigorturik, hamahirutik bat. Preso beltz gehiago dagoelako eta beltzak okerren bizi diren estatuetan daudelako *felony disenfranchisement* lege gogorrenak.

AEBek ia denetan markatzen dute tendentzia munduan. Presoak biderkatzeko honetan ere bai? ■



rua, eta hauetatik espetxe pribatuetan direnak ordukoaren %206 dira”.

Krisi ekonomikoarekin, ordea, agintari batzuk hasi ei dira ohartzen atxilotu kopurua jaitsi beharra dagoela, diru publikoa denetara ezin heldurik. Dirurik eza ez dabil urruti kriminalitatearen kontrako estrategiaz, droga batzuen despenalizazio proposamenez eta espetxe sistemaz erretzen hasi den eztabaida giro berriarekin.

Ildo horretan aurrerapauso nabarmenik egin ez dadin, garbi esanda, preso kopurua murriztu ez dadin, presio egiten dute espetxe pribatuen sustatzaileek. Dirutzak gastatzen dituzte lobbygintzan eta Sentencing Projectek aipatu dossierrean salatu duenez, “beren iraba-

zietatik milioika dolar bideratzen dituzte berriro sistema politikoaren zainetara, ziurtatu ahal izateko preso kopuru aski handi egoten jarraituko duela konpainien etekinak handitzeko”.


Gorago esan dugun arren gizonen alboan urriak direla emakume atxilotuak, hauen ugaritzea ikaragarriagoa izan da: 1980an 13.000 baldin baziren, 2010ean 112.000 baino haboro. %861eko igoera! Sentencing Projecten hitzetan, “hainbeste emakume kartzelaratzek ekarri du amarik gabe eta familiako loturarik gabe hazitako haurren kopuruaren handitzea”.

Azkenean, kaleko segurtasunaren eta kriminalitatearen eztabaida hankamotz planteatzen da AEBeko



ZINKUNEGI  
OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia · T. 943 420 624  
info@zinkunegioptika.com  
www.zinkunegioptika.com



Zerbitzua  
Kalitatea  
Garantia

